

## Enpresei nola lagundu?

- Buruntzaldeko udaletako euskara zerbitzuak enpresen datu-basea osatzen ari dira, eskaintzen zaien zerbitzua ahalik eta pertsonalizatuena izateko. Hori dela eta, galdetegia bidaltzen ari zaie enpresei, datu orokorrak eta hizkuntza-kudeaketari buruzkoak jaso, eta, beharren edo interesen arabera, taldekatu ahal izateko.
- Galdetegia laburra da, berehala erantzuteko modukoa. Posta arrunta, e-posta eta telefonoz egin daiteke.
- 44 dira dagoeneko erantzuna eman duten enpresak.
- Informazioa gehiago [hemen](#)

## Ziurtagiria eta laguntzak

- Azken asteetan aldaketak izan dira Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan. Hemendik aurrera Lourdes Auzmendi izango da Sailburuordea eta Ivan Igartua Koordinaziorako zuzendaria.
- Aldaketak aldaketa, martxan da dagoeneko Bikain ziurtagiriaren 2010eko deialdia. 19 erakundek egin dute ebaluatuak izateko eskaera, eta 80 pertsona arituko dira ebaluazio lanetan.
- Dirulaguntzen deialdiari dagokionez, maiatzaren amaierarako aurreikusita dago. Lan-munduan euskaren erabilera sustatzeko LanHitz laguntzetarako 2.200.000 euro aurreikusi dira.
- Informazioa gehiago [hemen](#)



## Googlen 55. hizkuntza

- Euskara da Google interneteko bilatzaileak GTranslate itzulpen-aplikazioari gehitu dion 55. hizkuntza. Zerbitzua *Alpha* egoeran dago oraindik, eta itzulpenak egiterakoan akatsak egingen ditu. Beste hizkuntza batzuekin egin duen bezala, hori hobetzea espero du Googlek.
- Informazioa gehiago [hemen](#) eta [hemen](#)
- GTranslate [hemen](#)



## Gora Babel!

- Patxi Baztarrikak, Andoaingo Udaleko euskara teknikariak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuorde ohiak, "Babeli gorazarre" eta "Babel o barbarie" liburua atera berri du euskaraz eta gaztelaniaz Alberdania argitaletxearekin. Bertan jaso ditu Euskadi, Espainia eta Europako hizkuntza politikei buruzko hausnarketak, eta Babel gorestu du ez baita madarikazioa.
- Informazioa gehiago [hemen](#)



## Ezetza asmatu!

Buruntzaldeko udalek "Ezetza asmatu 5 gezur borobilak!" lehiaketa jarri dute abian, lan-munduan euskara sustatzeko egitasmoaren barruan, eta denbora-pasa joko bat zozkatuko dute herri bakoitzeko asmatzaileen artean. Parte-hartzeko bi bide: batetik, hainbat enpresa, euskaltegi, ikastetxe, taberna eta dendatan banatu diren fitxak osatu eta udal euskara zerbitzuetara eramanez, edo [Buruntzaldeko webean](#) zuzenean erantzunez. Aukeran jarritako zortzi esalditetik gezurra diren bostak aukeratu, maiatzaren 27a baino lehen erantzun, eta zozketan parte hartu.



Andoain, Aostigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urdeta eta Usurbilgo Udalak. Euskarako Batzordeak.

[www.buruntzaldea.org](http://www.buruntzaldea.org)